

Bernarda Mercader Elurburu

*Donostia,
Gipuzkoa
(1916)*

Aurkibidea

Biografia



Intxaurrondoko etxe batean
jaioa, Altza herria zenean.
Aita Herrerakoa zen,
karrogilea, eta ama
Donostiako parte zaharrekoa.
Lau senide ziren.
Ategorrietara joan zen
eskolara. Bederatzi urte
zituenean Herrerara joan
ziren bizitzera. Azken urteak
Irungo Bentak auzoan eman
ditu.

Zintak

DON-144

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-03-31
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Auzoko baserriak

- **Erref:** DON-144/006
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:02:16. **Bukatu:** 00:03:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Bere etxea auzo txiki batean zegoen (Villa Airosa deitua, Intxaurrondon), eta maldan gora bi baserri zeuden: Lizardi eta Zategi.

2. Aita karrogilea zuen

- **Erref:** DON-144/008
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:03:17. **Bukatu:** 00:04:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Altzakoa zen; Herrerako baserri batekoa. Ama donostiarra zen, Parte Zaharrekoa. Karro egilea zen aita. Zaldi-karroak egiten zituen; plazara joateko erabiltzen zituzten baserritarrek.

3. Eskolara Ategorrietara

- **Erref:** DON-144/010
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:05:17. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Lau senide ziren. Eskolara lau urterekin joan zen, Ategorrietara. Berez ezin zuten, Intxaurrondo Altza zelako, baina Altzan eskola urruti zegoen. Zer ikasi zuen. Erdaraz ez zekien joan zenean, baina maistrak erdaldunak ziren.

4. Herrerara bizitzera

- **Erref:** DON-144/012
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:08:26. **Bukatu:** 00:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Umetako jolasak: sokasaltoan eta txingotan. Bederatzi urterekin Herrerara joan zen bizitzera. Eskola gertuago zuen, Herreran bertan. Anaia fraideetara joaten zen. 80 urte arte bizi izan zen Herreran.

5. Primo de Rivera eta Errepublika

- **Erref:** DON-144/014
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:11:03. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Herreran denak erdaraz hitz egiten zuten, euskaldunak izan arren. Maisu-maistrek erdaraz egiten zuten, baina beraiek ere bazekiten. Primo de Rivera. Errepublika aldarrikatu zutenekoa. Euskaldun gehienek abertzaleei ematen zieten botoa.</p>

6. Giro abertzalea, Errepublika garaian

- **Erref:** DON-144/015
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:16:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

Herrerako Batzokira joaten ziren igande arratsaldetan, amarekin, antzerkia ikustera. Kursaaileko bodegan dantza egiten zuten. Txofreko zezen plazan euskal festak izaten ziren.

7. Gerraren hasiera

- **Erref:** DON-144/019
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:18:31. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Gerraren hasiera. Gaixo egon zen hiru hilabetez.

8. Ez ziren ihesi joan; errepresioa

- **Erref:** DON-144/021
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:20:17. **Bukatu:** 00:23:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

Errepublikara garaiari libre zenez, Batzokia ireki zuten Herreran. Nazionalak sartu zirenean, itxi egin zuten. Asko joan ziren ihesi, baina beraiek ez. Nazionalak nola sartu ziren.

9. Salaketa faltsuak

- **Erref:** DON-144/022
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:23:41. **Bukatu:** 00:27:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Kartzelan sartu zituztenak. Inbidiarengatik salaketak jarri, eta fusilatu ere egiten zituzten. Donostiako biren istorioa kontatzen du, dirua zor ziolako salatu zuela, baina ez zitzaioela ondo atera.

10. Euskaraz egiteko arazorik ez kalean

- **Erref:** DON-144/026
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:29:32. **Bukatu:** 00:30:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskaraz hitz egitea ez zegoen galarazita, bere ustez. Etxean euskaraz egiten zuten, eta tabernetan gizonek ere bai.

11. Labaderora, arropa garbitzera; garbitasun pertsonala

- **Erref:** DON-144/027
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:30:47. **Bukatu:** 00:33:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropa etxean garbitzen zuen, baina amak nahiago zuen labaderora joan. Kaldera eramaten zuten buru gainean. Lehengo lisaburdinak. Elektrikoa erosi zuten gero. Komunean ez zuten urik; dutxarik ere ez. Sukaldean garbitzen ziren ahizpa biak, txandaka, atea zaintzen (aita eta anaiak ez sartzeko).

12. Estraperloko ogia, gerraostean

- **Erref:** DON-144/031
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:37:19. **Bukatu:** 00:41:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ogi falta izan zen gerra ondorean. Gosea pasatu zuten. Errazionamendua zegoen. Estraperloko ogia ere bazen, Nafarroatik ekarritako irinarekin egina, eta erosi egiten zuten.

13. Errenteriara dantzara eta zinemara

- **Erref:** DON-144/034
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:43:37. **Bukatu:** 00:47:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Errenterian alamedan bandak jotzen zuen igandetan. Herreran ez zegoen musikarik. Pasaian egon zene, bai denbora gutxian. Tranbian joaten ziren Errenteriara, eta batzuetan oinez ere bai, buelta luzea eginez. Zinemara joaten ziren batzuetan. Orduko pelikulen izenburuak aipatzen ditu.

14. Orduko pelikulak

- **Erref:** DON-144/036
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:48:18. **Bukatu:** 00:49:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Beste pelikula baten izenburua esaten du. Zentsuarrik ez zegoen, baina aktoreak ez ziren biluzik agertzen.

15. Elizako kontuak: mezak, jaunartzeak...

- **Erref:** DON-144/039
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:51:02. **Bukatu:** 00:54:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Elizarako buruan mantila, eta besoak eta paparra tapatuta. Galtzerdi gabe ere ez. Konfesatu egiten ziren. Dotrina. Eskolan ere erreztatzen zuten. Jaunartzeak: lehenengoa Ategorrietan egin zuen, eta bigarrena, nagusia, Altzako parrokian; Herreran ez zen parrokiarik orduan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com